

hasiera bat

GORKA URBIZU



GORKA URBIZU

hasiera bat

Gorka Urbizuk bere izenez sinatzen duen lehen diskoa da Hasierra bat. Hamar kantuk osatzen dute bilduma. Hamar aukera. Hamar erabaki. Izan zitezkeen beste batzuk, baina hauek dira: Maitasun bat, Teoria bat, Tren bat, Toki bat, Janela bat, Kolore bat, Lilura bat, Etxe bat, Sute bat, Besterik ez.

Kantuaren muinerainoko bidaia dirudi Hasierra bat diskoak. Soinu geruzak gehitu eta gehitzearen tentazio oro baztertuta, kontrako bidea aukeratu baitu egileak: kantuak erantzi, hustu, kimatu... euren soiltasuna agerian utzi arte. Gordin. Eder. Horrexek egiten ditu, hain zuzen ere, harkaitza bezain gogor, haizeak astindutako hostoa bezain hauskor.

"Ikusmenak itsututa gaude"-la diosku Urbizuk, eta ezustean kaleratu duen lan honekin bost zentzumenez entzuteko gonbitea luzatzen digula dirudi. Gelditu eta entzun. Barrutik soilik ireki daitezkeen ateak ireki. Garbitu zarata. Beharrezkoa dena esan, besterik ez. Soiltasunaren ederra lortzen ahalegindu, sortuko denaren beldurrik gabe.

Lleida inguruko 1904ko antzoki zahar bat eta zortzi-pistako analogiko xume bat: horiexek izan dira doinuok soinuaz jasotzeko lanabes oinarritzkoak. Aurriritzi oro alboratuta, beste nonbaitetik sortzeko apustua egin du Berri Txarrakeko abeslari ohiak: soildu eta soildu, muina ukitu arte: Hezurra. Egia. Egia bat.

Egungo gure bizitzeko modu frenetikoaren ifrentzua da Gorka Urbizuren Hasierra bat lana, hitzaren eta kantuaren sortze lanak eskatzen duten patxadaz ondua. Barnera biltzeko gonbite bat eta deslilurarentzako lekuri ez dagoen toki sekretu bat. Munduaren basakeriaren aurrean edertasun dosi bat eskaintzeko ahalegin gordin bat.

Jordi Matasek ekoitzia, bere biluzian erpin ugari erakusten duen diskoa da hau. Maitasunez eta maitasunaz egina. Ez alde egin denbora baino lehen. Helduko da. Heldu da. Eta hau, hasiera bat baino ez da. 2024an zuzenekoetan ikusiko dugu elkar.

KANTU-ZERRENDA

- A) 1 - Maitasun bat
- 2 - Teoria bat
- 3 - Tren bat
- 4 - Toki bat
- 5 - Janela bat
- B) 6 - Kolore bat
- 7 - Lilura bat
- 8 - Etxe bat
- 9 - Sute bat
- 10 - Besterik ez



FITXA TEKNIKOA

Teatre de ca l'Erl-en grabatua (Guissona, Lleida, Kataluña)

Ekoizpen, grabaketa eta nahasketa arduraduna: Jordi Matas

Koekoizpena eta grabaketa eta nahasketa laguntzailea: Joan Pons

Masterizazioa: Dave Cooley, Elysian Masters estudioan (Los Angeles, Kalifornia, AEB)

Musika eta letra guztia: Gorka Urbizu

Grabaketa sesioetako musikariak:

Gorka Urbizu: Ahotsa eta gitarra

Jordi Matas: Baxua, gitarra eta teklatuak. Bateria en 'Sute bat' kantuan

Joan Pons: Batera 'Janela bat', 'Maitasun bat' eta 'Besterik ez' kantuetan

Ferran Palau: Bateria 'Tren bat' eta 'Kolore bat' kantuetan

Ildefons Alonso 'Ildu': Bateria 'Toki bat', 'Teoria bat' eta 'Lilura bat' kantuetan

Azaleko margolana: Heather Horton

Diseinua: Ander X. Tejadas

Promozio argazkiak: Ibai Arrieta

Azpizigilu Bat / Only In Dreams-ek argitaratua

Managementa: Panda Artist Management

Webgune ofiziala
www.gorkaurbizu.eus

Kontratazioa:

Panda Artist Management (Pau Vargas)
600 69 57 28 / pau@pandaartistmanagement.net

Komunikazioa:

Gotzon Barandiaran
656 796 209 / g.barandiaran@dijitalidadea.com

GORKA URBIZU

hasiera bat

GORKA URBIZU RUIZ (Lekunberri, 1977) musikari, konpositore eta ekoizle euskalduna da. Berri Txarrak taldeko abeslari eta gitarrista izandakoa, besteak beste kantugintzan eta letragile gisa egindako bideetatik da ezaguna.

14 urte besterik ez zituela sortu zuen bere lehendabiziko taldea, pianoan idatzitako kantuak oholtzara eramateko asmoz. Orduetik, diskogintza eta zuzeneko lotutako bizimodua darama egile nafarrak. Berri Txarrakekin mundu oson barna mila kontzertutik gora emateaz gain, hainbat egitasmo interesgarri jarri izan ditu abian, gustu musikal eklektikoa eta eten gabeko bilaketa artistikoa erakutsiaz; hala nola: **KATAMALO** (poesia eta musika akustikoa nahastuz) edo **PEIREMANS+** (power pop doinuetatik gertuagoko taldea).

2024ko urtarrilean, ezustean 'Hasiera Bat' diskoa kaleratu du. Bere izen propioarekin sinatzen duen lehendabiziko lana da hau, modu horretan hainbat urtetako isilunea urratuz. Impasse aro honetan, baina, Gorka Urbizu ez da geldirik egon. Besteak beste, ekoizpenaren munduan murgildu da (La M.O.D.A. taldearen Nuevo Cancionero Burgalés diskoarekin egin zuen debuta 2022an); halaber, hainbat kolaborazio grabatu ditu, esaterako Cala Vento Gironako taldearekin Casa Linda diskorako egindakoa.

TEORIA BAT

Alexander Cabeza Trigg izan da TEORIA BAT kantuari irudiak jartzeko ardura izan duen zinemagilea. Diskoa bere osotasunean kaleratua izan bada ere, hauxe har dezakegu Gorka Urbizuren bakarkako debutaren lehendabiziko single moduan.

Dokumentalista gaztea, bere 16mm kamera eskutan, Guissonako (Lleida) Teatre de Ca l'Eril antzokira gerturatu zen 2023ko udan, 'Hasiera Bat' diskoko grabaketa sesioak bertatik bertara ikusi eta filmatzeko. Material horrexekin ondu du pieza, hain zuzen ere, bertan bizitako giro berezia jaso eta Gorkaren alboan izan diren musikarien arteko konplizitatea islatzeko asmoz: Jordi Matas, Joan Pons, Ferran Palau eta Ildu.